

IBERDROLARI MOZORROA KENDUZ!

Iberdrola botere korporatiboa (multzionalak gauzatzen duten boterea) da. Gisa honetako enpresek botere hori erabiltzeko erakunde ekonomiko eta politikoen babesa dute.

Iberdrolak duen boterearen zenbait adibide:

- **Botere ekonomikoa:**
 - Oligopolio elektrikoaren parte da (5 enpresaz osatutako taldea eta banaketa elektrikoa kontrolatzen dute).
- **Botere soziala:**
 - 2012an (krisi ekonomiko betean) 588.120 kasutan eten zuen argindarra, ez ordaintzeagatik.
 - Berotegi efektua eragiten duten gas gehien igortzen dituzten estatuko 10 enpresetako bat da.
- **Botere juridikoa:**
 - Giza eskubideak urratzeagatik hainbat salaketa jaso baditu ere (batez ere, herri indigenen kasuan), kalte larriak eragiten dituzten proiektu erraldoiak gauzatzen jarraitzen du.
- **Botere politikoa:**
 - Sektore elektrikoaren erregulazioari esker, enpresa elektriko nagusiek bermatuta dituzte irabazi handiak.
 - Hainbat politikari igaro dira enpresa honen Administrazio Kontseilutik (esaterako, Atutxa Eusko Legelbiltzarreko presidente ohia).

**Iberdrola eta bestelako botere korporatiboak
ARRASATETIK KANPORA!**